

Arrosa koloreko obsesioa

Egunaren patuak eta gauaren zio ezberdinek gau honetan taberna honetan bakardadera kondenatu naute. Ingurukoen sexu grinen gatibu eta alkoholaren esklabu nagoen honetan ez dut gosea sortzen didan ezer ikusten, harik eta emakume bat nire alboan jarri den arte.

Aurpegi leuna eta begi handiak dituen emakume honek gerritik heldu dit eta nik ere berdin egin behar izan dut. Begietara begiratu dit zuzen eta sakon eta lozorroan zirauen goseteari ateak ireki dizkio. Ezin izan diot begiradari eutsi eta begiak itxi ditut. Bere lurrin goxoa dastatu dut eta bero-bero jarri naiz. Begiak zabaldu ditut eta hara! Arrosa koloreko elastikoa zeraman emakumea falta da!

Taberna bitan miatu dut eta baita komunak eta tabernaren ingurua baina ez da emakumea ageri. Emakume hori galdu dut. Arrosa koloreko elastikoa daraman emakume katxarroa galdu dut. Non ote dago? Tabernako leku berdinerara bueltatu naiz bere zain baina ez da agertu. Elastiko arrosa darama, hori da dakidan bakarra.

Aurreko eguneko edari madarikatuen lorratzak nozitzen ditut buruan. Deseatzen nengoen hegazkinean nire eserlekuaz jabetu eta hain beharrezkoa dudan lo-kuluxka botatzeko. Liburu bat daramat esku tartean, ez irakurtzeko baizik eta eskuetan zerbait eramatea gustatzen zaidalako, denbora pasa bat. Nire eskuineko eserlekuan bat-batean agertu den neskak liburu hori gogoko duela esan dit, aspaldi irakurria zuela eta beraren analisi kritiko eta sakon bat egin dit, ni harri ta zur utzi nauena. Emakumeak liburuko ideia nagusia ezin hobeto atera eta egungo errealitatearen kritika ezkutua dela ziurtatu dit. Horrekin txoratu egin nau. Jakintzan ilustratua den emakume kritiko eta argia dela frogatu dit, ideia ausartez hornitua. Nire baimenik izan barik bereganatu egin nau. Ondorengo beste ordu erdian gure nahi, gustu eta afizioez hitz egin dugu eta maitemindu egin nau. Nik denbora osoan begietara begira egon natzaio bere ezpainen dantzari so, ahots geldo, leun eta misteriotsu batez egin diot berba eta ondorioz gure aurpegiak urbildu egin izan behar ditugu elkar hobeto aditzeko.

Erretorika bukatu zaigu eta zer esan ez dakidala gelditu naiz bere muturretik eternitate batetara, hain gertu eta hain urrun. Halako batean musu eman diot eta berak goxoki erantzun dit bere ezpainen ederren laztanez.

Eskuak bere belarri atzean kokatu ditut, bere buruari eusteko eta fundamentuz musukatzeko. Bere gerri liraina eskuekin ikertu dut eta eskuak gorantz egin dute nik inolako agindurik eman gabe bere titietaraino. Nire eskuen aburuz titiak ez dira handiak baina mardulak eta freskoak dira aldi berean eta titi puntak gogor eta erne daude. Titien dasta-minak itsutzen nau.

Arrosa koloreko obsesioa

Musuarekin bukatu dut eta titiok mastekatzera noala begiak bere bularraldean galdu zaizkit. Hegazkin honetan ezagutu berri dudan emakume honek eskote esanguratsudun elastiko arrosa bat darama. Hegazkineko errealitatea eta nire desiorik eroenak denak bat egin dute eta egarriz ito naute. Elastiko arrosa! Titiak musukatzen, eraten eta haginekin jaten hasi naiz baina elastiko arrosadun emakumeak urundu egin nau elastiko horretatik.

Tentetu egin da eta esku batetik tira egin dit bere atzetik arrastaka eramanez. Komunera eraman nau eta bertan dena libre dela xuxurlatu dit belarrira eta zaplazteko bat eman dit aurpegian. Prakash arrapaladan erantzi ditugu eta ondoren nik neure elastikoa kendu dut, bero gehiegi egiten duelako eremu txiker honetan bera ere elastikoa kentzera zoala geldiarazi egin dut eta arrosa koloreko janzki hori mantentzeko erregutu diot. Sexu grinez sututa bularretakoa kendu diot elastikoaren azpitik eta titi puntak lerdez busti dizkiot elastikoa bion artean zelarik.

Elastiko arrosadun emakume txikia besoekin komuneko edozein paretan kontra aupatu dut eta bere azken tanga kentzen hasi natzaiola, nahigabe akaso edo nahita agian baina aluaren sarrera laztandu dut; umel-umela. Buztan gihartsua gotorlekutik atera eta bere hankarteari egin diot eraso. Komuneko paretaren kontra egin diot bultza eta bertan plastikozko paretak dardaran jarri ditugu. Nire sexua beroturik eta lanean sentitzen dut bere sexuan barrena bidea egiten. Laster potro-hots amorratuak arnasestuak eta hasperenak isildu ditu. Emakumeak harria bezain gogorra dagoen zakila bere alutik atera, lepoa eman dit eta bere atzealde estuan sartu du. Ipurdiaekin paretaren kontra bultzatu nau eta atzeraka eta aurreraka hasi da. Ezer egin ezin izan dudala hegazkineko komun hartako elastiko arrosadun emakumearen barrenean blaitu naiz.

Hain leku txikian konfinatutako tenperatura altua dela medio erdi biluzik irten behar izan dugu komunetik, korrika, arnas eske. Geureak diren eserleketan eseri gara eta gainontzeko denbora arnasa berreskuratzen eman dugu. Hegazkineko atea ireki bezain fite egin du hanka elastiko arrosadun emakumeak azken musurik eman gabe ezta telefono zenbakirik konpartitu gabe.

Orduantxe konturatu naiz nire bizitza osoan zenbakia ez eskatu izanaz damutuko nintzela, eta ni hemen, geldi-geldi. Elastiko arrosa darama, hori da dakidan bakarra.

Buruko minak eta logurak nekatuta uko egin diot eguna probetxuz baliatzeari. Uko egin diot, hiri arrotzari bisita egiteari, gaur lan egiteari eta uko egin diot arrosa koloreko elastikoa zeraman emakumea burutik erbesteratzeari. Uko egin diot, hoteleko bista onenen gelari eta uko egin diot dutxa bero bateri. Gelan sartu, guztiz erantzi eta argia amatatu baino lehen sartu naiz ohera.

Arrosa koloreko obsesioa

Arrosa, arrosa, tabernako arrosa koloreko elastikodun emakumea gelan sartu da eta nire gerri gainean eseri da. Ez dut ezer esan eta ezta ezer egin. Berari begira gelditu naiz eta bera nire ezpanei begira. Ikaraturik nago ezin dut momentu hau edonola galdu, egiten dudan guztia perfektua eta emakumearen gustuko izan behar da.

Astiro-astiro nire ahora gerturatu du burua eta musu ematera joan natzaionean hozka egin dit. Hozka egin dit ezpanetan. Odola nabari dut ahoan. Odol gustua, azidoa. Min handia eman dit, baina berdin dio, emakume honek hau eta gehiago merezi du. Orain musu bero bat eman dit eta mihia esofagoraino sartu dit, eta ni txoratu egin naiz. Bero-bero jarri naiz eta nik gura dudan emakumea dut gerri gainean...

Inoiz ez dut elastiko arrosadun emakumearen musu grina bezalako ezer jaso, bere mihia nire aho barrunbeetan barrena dabil eta halako batean sudurra estali dit. Ezin dut arnasarik hartu, ezin dut arnasarik hartu!

Eskuekin bera nire gainetik kentzen ahalegindu naiz, arnastu nahi dut. Baina ezin dut, eskuburdinak ditut... baita hanketan ere. Ezin naiz mugitu. Azkenean arnasa berreskuratu dut emakumeak mihia nire barrutik atera duenean. Berriz haginka egin dit, baina orain saman. Ulergaitza egiten zaidan arrazoi batengatik, oso bero nago, emakumea jan egin nahi dut, nire mina berriz bueltatu nahi diot eta interesekin gainera. Gorputza ahal izan dudan modura mugitu dut beragana hurbiltzeko, eta haginka egin diot orain nik bere bular mardul eta handietan. Elastiko arrosa haginekin suntsitu dut. Eta bere bularrak lerdez estali ditut. Berak bitartean nire zakil irmo eta garatua bere alu umelean sartu du... eta... eta plazerretan ito naiz.

Ezin ditut ezta eskuak ezta hankak mugitu. Elastiko arrosarik ez duen emakumea mugimendu exotiko eta erritmikoez ari da mugitzen gerrialdea. Bere esku nago. Ezin naiteke mugitu... Bere nahien menpe nago. Abiadura handiagoz hasi da mugitzen. Nire trastea bere alutik barrena koba zapaltzen nozitzen dut, paretak zabaltzen...

Begiak zabaldu ditut eta badakit zer gertatu den. Orain dena ulertu dut. Eskuak hankartera eramane ditut eta espero nuena baieztatu dut: bustia. Ametsetan busti naiz eta estasiaren zoramenak esnatuarazi egin nau.

Hau da eromena, burutik ezin kendurik nabilen emakume hori nire loaren jabe da, eromenaren eromenaz ero akabatu behar dut!

Ganoraz jarraitu dut lotan berriz esnatu arte. Baina ordutik, emakumea burutik ezin kendurik jarraitu dut. Hau da obsesioa! Gosaltzen, lanean eta enkarguak egiterakoan, bazkalorduan, igogailuko segundo hiletan, emakume horren irudiak itsutzen dizkit zentzumenak!

Arrosa koloreko obsesioa

Benetan, ezin dut gehiago!

Obsesioak ni osteran engainatu orduko hotel azpiko pub moderno horietako batera sartu naiz. Lokal handia, itxuroso apaindua eta hobeto zaindua dirudien honetan jende gutxi ageri da eta paretetako argazkietan ere ez da emakumerik ageri. Aste barrua izanik ez da arraroa hain hutsik ikustea. Ongi kargatutako rona eskatu dut.

Edariaren aurrean nago jarritik nire gauetako ametsik ederrenek eguna amesgaizto bilakatzen didan obsesio makurraren kontra konspiratu nahiean. Nolatan ahantz daiteke elastiko arrosa duen emakume katxarro hori. Neska horren izter landu eta garatuek begiak itxiarazten dizkirate nire gomutapenean berriz fundamentuz kontenpla ditzadan. Bere ipurdi mardul horrek nire arreta oso osoa bereganatzen du eta gaur goizean mugikorreko mezuak hiru aldiz irakurri behar izan ditut guztiz ulertzeko; kontzentratzeko arazo larriak nozitzen ari naiz. Ezin dezaket horrela lanean jarraitu. Arrosa koloreko elastikoa duen emakume horren sexu beroa dastatu eta haginka egin nahi diot, osorik neuretzat bakarrik nahi dut. Orain. Nahi dudana gauza bakarra!

Ozen eta bakarrik hitz egiten hasi naiz nire Bacardiarekin arduratu egiten ez nauten funts gabeko gaiez nire buruak sexu obsesioak alde batera uzteko eta obsesionatzen nauten obsesio puta honekin amaitzeko. Funtzionatu egin du.

Edalontzia hustu eta komunera joan naiz. Komunean sartu eta atea zarratzera noala hogeita hamar urtekoen krisia oraintsu gainditua izan beharko lukeen mutil lotsagabe eta kalamidade batek ateari eutsi dio. Nire kexu orroak ekoizteko astirik ere eman gabe nire paketea oratu du esku batekin, bestearekin komuneko atea itxi duen bitartean bera sartu ostean.

Egoerak txundituta eta berebiziko harridura eta ikaraz, arnasak huts egin dit eta ezin izan diot atrebentzia honi ezetzarekin erantzun. Ahora egin dit salto. Bere mingaina nire esofagotik behera jaitsi da. Zirrara denak aktibatu dizkit. Bere muxuak ezpainak dantzan jarri dizkit eta haginka egin diot. Min egin nahi diot. Atzera egin du paso bat ihesi, baina ez diot utziko. Bi eskuekin heldu dut preso eta ni musukatzera derrigortu dut, eta orain berak egin dit hozka ezpanetan. Horrek komuneko tenperatura pekatuen bero-neurrira altxatu du. Ezin dut gehiago, ahoa bere aurpegitik urrundu eta sama bukatzen den toki horretan min egin diot. Nire hortz guztien arrastoak larruazalean grabaturik utzi dizkiot. Berak minaren minez garrasi egin du. Apur bat errudun sentitu naiz, baina ez larregi eta musutxo maitekor eta leun bat eman diot bere ezpain mamitsuetan.

Ni konturatu ere egin gabe gerrikoa askatu dit dagoeneko eta bakeroak erantzi dizkit, edo ahalegindu egin da hobeto esan da. Ez dio astirik eman. Prakak belaunetik zintzilik geratu

Arrosa koloreko obsesioa

zaizkidanerako nire tramankulu irmo, sendo ta tinkoa irensten hasi da. Ostras! Kantzontzilo eta guzti ari da dena jaten. Kantzontziloak ere jaitsi dizkit eta barrabilak guztiz irentsi. Hau da eromena! Eskuaz nire arrautzak mugiarazi ditut bere aho barruan berak mingainarekin dastatzen eta samurtasunez busten dituen bitartean. Dios. Bereziki gogor jarri zait zakila. Orain buztanetik leun-leun heldu dit eta gora eta bera ari da mugitzen nire arrautzen atzekaldea ezpanekin miatzen, musukatzen eta mingainarekin jolasean dagoen bitartean. Eskrotorik gabe utziko nau horrela miazkatzen jarraitzen badu. Redios! Hau da beroa. Ezin dut gehiago. Ezin dut gehiago! Nire traste honek eztanda egin behar dit. Bero-bero dago, tinko-tinko eta nonbait sartu behar dut derrigorrez!

Besoetatik tira egin diot mutilari tentetzeko eta ondoren buelta emateaz batera prakak edozelan kendu dizkiot. Orduantxe bere ipurdi mardul eta saltokariaz jabetu nahiz. Ezin hobeto. Hau da ipurdi katxarroa. Atzamar bihurriekin bere zuloaren bila hasi naiz eta bi atzamar sartu dizkiot. Oso erratz sartu dira, inolako esfortzurik barik. Hirugarrena sartu dut erraztasun maila bardinarekin.

Ezin izan diot tentazioari gehiago eutsi! Kondoia instintuz segundo batean jantzi eta hantxe sartu dut nire plazer tresna atze-bikoitz eder horretan barrena.

Barrura arte sartu diot, astiro-astiro. Hau da lasaitua. Kristoren lasaitua hartu dut sartu dudanean baina arin bueltatu zaizkit berotasunaren demandak eta jo eta ke su eman diot nire kolpe bakoitza errebotatzen zuen atze eder hori. Atzealdearen ugazaba arrantzaka hasi da, ozen.

Plazerrean gozatzen geundela beste mutil bat sartu da komunera. Lotsatu egin beharko nintzela pentsatu dut, baina konturatu naiz beranduegi zela horretarako beraz gurean jarraitu dut.

Mutil sartu berria beste mutilaren aurrean gelditu da eta musuka hasi datzaio. Nik daflipat. Nik eskua ipurdi masail batetik, izterretatik zakileraino mugitu dut dena emeki-emeki laztanduz eta zakila goraka eta beheraka igurtzi diot.

Halako batean atze-bikoitz ederrenetik puzkerra sentitu eta entzun dut. Horrek astoratu egin nau. Asko berotu nau. Puzker hori askatzeaz batera gainera mutila busti egin da eta bere aurreko aho-luzearen elastikoa semenez busti du. Ni ere momentuan asebetetu naiz.

Arrazioa berreskuratu dudanerako tabernatik ihes egin dut. Ihes! Jantzi eta aire! Ohera sartu naiz egun aldrebes honi amaiera jartzeko asmoz baina lokartu aurreko azken trantzean berriz eta ekidin-ezina dirudien legez elastiko arrosaz gogoratu naiz eta baita berau jantzen zuen emakume hartaz.

Arrosa koloreko obsesioa

Gainontzeko astea ere antzera pasatu dut; pekatua gogoan, ezinegonaz gorputzean eta beroa hanka tartean. Egin beharrak egin eta hegazkina hartu dut bariku arrastian zuzen eta arin heldu naiz etxera bertan maleta utzi eta aurreko eguneko tabernara joan naiz engainatu nauen emakume manipulatzaile haren bila.

Orduak pasatu dira eta ni garagardoz ito beharrean nagoen honetan amore eman dut eta jesarlekutik altxatu eta irtetzera noala aurreko eguneko emakumea ikusi dut. Baina daraman elastikoa ez da aurrekoaren kolore berekoa.

Begiratu egin nau. Berari begira harrapatu nau. Begiradari eutsi diot. Nire begiradatik ihesi zerbitzariari zerbait eskatu dio eta honek azkar atera. Barra berdinean baina hiru bat metro aldentuta emakumearen edari berdina eskatu dut. Emakumea niri begirada dago. Ni ere bai. Segundoak daramatzagu, minutuak, orduak eta gauak. Ezin dut gehiago. Begirada trukaketa hautsi du eta mugitzen hasi da. Ez diot utziko. Nire arnasa, zentzumena, gogoan, nortasuna eta loa lapurtu didan emakumea nirea da izatez, neurea da legez. Bere atzetik noala deitu egin diot, gelditu egin da eta buelta erdi eman eta musukatu egin nau. Eskuak nire gorputzean lotu ditu eta nik paretaren kontra neuretzat bahitu dut. Ez diot ihes egiteko aukerarik utziko. Bizitza lapurtu dit, nire desio guztiak uneoro sustatu eta neure zentzumena bere egin du, horregatik emakumea neure hartuko dut.

Lotsa barik eta kristoren sexu grinez hankartea laztandu diot atzamarrekin arin baina samur-samur. Berak bitartean mihia nire ahoan barrena askatu du eta ni berandu konturatu naizenerako titi puntetan atximurka egiten hasi zait. Hau da zoramen beroa! Eskutik heldu eta ia arrastaka atera dut tabernatik. Arrapaladan eramanez hondartzaraino eta hondartzako haitzen artean erantzi gara. Bere sexu bero eta umela dastatu dut eta mihiarenkin jolasean atera dizkiot bere lehen plazer hatsak. Ondoren lau hankatan jarriarazi dut eta nire betiko zakil erne eta gogorra barruraino sartu dut eta plazerraren nahien menpe gelditu gara beste behin, izerditan blai.

Elastiko gabeko emakumearen garrasiak zaratsatuak dira oso eta horrek berotzen nau. Bere atzealde tinkoari masaje sentsual bat ematen ari natzaio eta horrek berotzen nau. Eta bere eta nire sexuen sexu-borrokak sortzen duen trumoi-hots zaratsatuak ikaragarri berotzen nau. Azkenean busteko zorian nagoela igarri ei dit eta nik ezarritako postura alde batera utzi eta tramankulua zurruputzen hasi zait. Nik ezer esan gabe busti naiz bere aho barruan.

Konortea beste taberna batean berreskuratu dut nik bakarrik eta nire bakardadean. Zin dagit, plazerra eta plazerra baino gehiago bizi izan dudan gau honengan esperantza gehiago jarriak nituela. Joaldia bortitza izan da, baina ez perfektua, gehiegizkoa edo erdi dibinoa, baina ez

## Arrosa koloreko obsesioa

nahikoa. Emakume harengandik gehiago espero nuen. Nahiz eta ekintza itzela izan den, ekintzarekin batera bukatu da gure etorkizuna; ez dut ezer nahi berarekin.

Arrosa kolorez jantzitako emakume harengandik zerbait gehiago espero nuen. Hori da dakidan bakarra. Nire ronaren aurrean jarririk begi batzuk harrapatu ditut zelatan. Nire aurreko ispiluaren barrenean begi batzuk daude niri erasoka. Begiradari eutsi diot. Begirada sakona, esanguratsua, gaiztoa, erasokorra, mingarria, egoista, indartsua eta boteretsua. Elastiko laranja darama, hori da dakidan bakarra.